

## Zer-nolako aldizkaria nahi duzu?

**H**AMAR urte dira azken aldiz eta agirian galdera berori egin genizuenetik. Agian gogoan duzu. Oso itaun-zerrenda zehatza proposatu genuen eta aldizkariaren barne ezarri genuen. Itaunketaren harre-  
ra, 160 erantzun gutxi gorabehera, nahikotzat jo genuen: arduratueneke beren eritzien berri eman ziguten, gehiengo alde eta zenbait oso zorrotz azaldu zirela. Eritzi horien xehetasunak 116. zenbakian eman genituen. Horrek lagundu egin digu Pyrenaica bideratzen azken hamarkada honetan.

*Seguruenik, gu geu ere aldatzen ari gara apurka apurka, orokorrean harturik ordea, betikook osatzen dugu kazetaritaldea, egun zaharxeagoak bai, baina orain lankide gazteagoek lagundurik. Horri esker, aldizkariaren betiko izaerari eusteaz gain, hobetzen ere ahalegintzen gara.*

*Hamar urteotan zehar ikuspara egiten badugu, begibistakoa da aipatutako aldaketa dinamika. Itxurari dagokionez, pasatu dugu tankera txikitik (17 x 24), barruko osoa zuribeltzez zuenetik, gaurko tankerara (21 x 28), azken zenbakitik guztiz kolorez denera. Edukiaren aldetik, gaien bila eta berrikuntzak sartzeko ahaleginetan gabiltza. Batzu ondo kausitu eta beste batzuk huts egiten dutela, ordezkatu egiten ditugu agortzen direnean: urte-lehiaketak, zortzimilakoen kronika, elkarrizketak, haurrentzako eta klubon saila, etab. Eta maketan, gero eta irtenbide irudipentsuagoak agertzen ditugu.*

*Begien aurrean dago alpinismoa arestian imajinatu ere imajinatu ez genukeen abiaduraz ikusten ari den aldaketei erantzun behar diegula. Adibideak jarriko ez baditut ere, ez doakio bakarrik goi mailako alpinismoari, hots, eskalada eta eskiari edo Himalayan burutukoei. Gure asteburutako, etxeko edo goizeko mendizaletasunak ere, belaunaldi berriek dakartzaten puntako berrikuntzak gehitzen ditu.*

*Horrez gero, bide teknikoagoi heldu diegu benetazko egoera hori ezagutzeko. Geure buruari honako galdera hau egin diogu: nolakoa da gure mendizaletasuna? Geografia eta kulturaren arabera ezagutu eta, zein mendi-ibilaldi mota egiten dituen argi adierazi dugu. Ondoren galdetu dizugu: zer-nolako Pyrenaica nahi duzu irudi, azal eta edukiaren aldetik? Horra hor erantzuna. Geure partez aurrera goaz, euskal mendizaleak eskatzen duenari kalitatez erantzun nahian.*

## ¿A ti cómo te gusta la revista?

**L**A última vez que lo preguntamos a todos, así en público, fue hace diez años. Quizá lo recuerdes. Propusimos un cuestionario muy concreto, que incluíamos en la propia revista. La respuesta, unas 160 contestaciones, se consideró como suficiente: los más interesados, la mayoría a favor y también unos cuantos muy críticos, nos dieron su opinión, que se explicó con detalle en el número 116. Y aquello nos ha servido para orientar Pyrenaica en esta última década.

Seguramente nosotros también vamos cambiando cada uno, poco a poco, pero en conjunto seguimos siendo el mismo Equipo de Redacción de entonces, hoy un poco más carrozas, con la incorporación de varios más jóvenes. Ello nos posibilita el mantener el estilo de la revista, a la vez que intentamos continuamente mejorarla.

Haciendo un pequeño repaso a estos diez años se evidencia esta dinámica de cambio. En la presentación hemos pasado del tamaño pequeño (17 x 24) con todo el interior en blanco y negro, al tamaño actual (21 x 28) y a partir del último número sale todo en color. En cuanto al contenido seguimos buscando temas y ensayando formas de hacer novedosas, unas que permanecen y otras que se van sustituyendo cuando se agotan: los concursos anuales, la crónica ochomilista, las entrevistas, las secciones infantil y de clubs, etc. Y en la maqueta, planteando soluciones cada vez más imaginativas.

Está claro que tenemos que responder a las transformaciones que el alpinismo está experimentando, a una velocidad impensada hace poco. No voy a poner ejemplos, pero no es sólo el alpinismo del más alto nivel, de la escalada y esquí extremos o de las realizaciones en el Himalaya. También nuestro montañismo de fin de semana, el de casa, el de mañaneras, multiplica las novedades llamativas que aportan las nuevas generaciones.

Así que hemos decidido usar procedimientos más técnicos para conocer esta realidad. Nos hemos preguntado ¿cómo es nuestro montañismo? y lo hemos identificado geográfica y culturalmente, y hemos explicitado el tipo de montaña que hace. Luego le hemos preguntado: ¿qué Pyrenaica quieres? en cuanto a la imagen, a la forma y al fondo. Ahí tenemos la respuesta. Nosotros seguimos intentando dar calidad a lo que el montañero vasco pide.